

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa proiektua martxan jartzeak eta mantentzeak hainbat kostu ekarriko ditu, eta kostu horiek ondo identifikatzea funtsezkoa da proiektua bidegarrria izateko. Gure negozio ereduan kostu finkoak, kostu aldakorrak eta hasierako inbertsio garrantzitsuak bereizi ditugu.

Alde batetik, kostu finkoak daude. Hauek dira beti ordaindu behar diren gastuak, salmentak egon edo ez. Adibidez: webgunea mantentzea, online saltzeko plataformak, administrazioko gastuak, bezeroei arreta ematea eta oinarritzko marketina. Hasieran, gastu hauek gutxi gorabehera berdinak dira.

Bestetik, kostu aldakorrak daude, ekoizpenaren eta salmenten arabera aldatzen direnak. Kostu nagusiak pultxeren fabrikazioarekin lotuta egongo dira: sentsoreak, materialak (metala, korreak, konplementuak), montaketa eta pertsonalizazioa. Horiez gain, paketeak egitea, bidalketa-kostuak eta online plataformen komizioak ere kostu aldakorrak izango dira.

Hasieran, inbertsio handiena diseinu eta garapen teknologikoan egingo da. Prototipoen garapena, sentsore sistemaren diseinua eta lehen stockaren ekoizpena funtsezko inbertsioak izango dira, produktua merkatura atera ahal izateko.

Ekonomiaren ikuspegitik, proiektuak abantaila ekonomikoak izan ditzake. Zenbat eta gehiago saldu, unitateko kostua txikiagoa izango da. Gainera, produktua hiri eta merkatu gehiagotan saltzean, marketin eta banaketa gastuak hobeto aprobetxatuko dira.

Azkenik, kontuan hartu beharreko beste kostu batzuk ere badaude, hala nola ingurumen-kostuak (ekoizpena eta garraioa) eta gizartearekin lotutako gastuak. Kostu guztiak modu egokian planifikatuz, gure enpresa proiektua ekonomikoki bideragarria izango da.